

Lavigerie'k ni euskalduna naz eta euskaldun lez setatsua, bear danetan setatsua esaten ei ekian.

Santi'k be, euskaldun jator lez, euskaldun setatsu ekin eutsan bere asmakizunetako liburuetan.

Lavigerie'n bizitzan irakurten da, Iparraldeko Larresore'ko seminarioan ikasle zala, bere musikako irakasle zan Hemlet irakasleak bere batuteagaz zartada gogor bat emon eutsala, eta Lavigerie'k here txirula apurtu ebalira irakaslearen buruan.

Eta sekula gorrotorik ezagutzen ez eban lez, ekintza orrek alkarren artean munduko lagunik onen lez alkartu zitula.

Nik ba dakit Santi'k, iñoiz here lagunik andienagaz txiristadaren bat eukiarren, minuturik ez ebalira galtzen lagunari bere laguntasunik oparoena eskintzen. Orretan be, Santi, biotz-zabala zan, biotzari maitasunaren indarririk galtzen lagaten ez eutsana.

Aita Santi euskalduna...
Euskerari eta aberriari umetatik eskeiñi,
mendietan here bizia maitasunaren arriskuan ipiñi ta
odola ixuritzeko arriskuei aurre egin,
eta espetxetan eskinta on ukatu barik iraun,
konbentuan eta kalean eskaluparioaren azpiko gurutzeari
laztanka
here sormeneko liburuak noiz nai erabili bizi...
Gizon a zer zan?

Gogoratu gerratean, "Kirikiño" gudataldeko kapillau zala, here amari bialdutako olerki biozkorra. Bizitza guztirako maitasuna eta aberriaganako ziña ziurtatzen dauana:

Amatxu laztan, ez nitzaz negar,
zotin orreik irato;
kutuna zaitut biotz biotzez
baña Euzkadi guztion ama
oraindik maiteago,
oraindik maiteago.

Euzkadi eder, maitezko lore,
neure odol gorria
zeure aldan dixurit ori,
il arteraiño zeurea nozu,
or nire oparia,
or nire oparia.

Eta opari ori barriztuten bizi izan zan, Gasteiz'en 1996-II-1 l'an here arimak zoriondunen egoitzara egaz egin arte.

Zeñek esan Aita Santi euskalduna, abertzalea, eta euskaldun jatorra ez zanik? Gure ospea eta gure eskerra berrari.

ZUBIKARI tar AUGUSTIN

RITA SANTI TA EUSKALERRIA

Erri eder bat zendukan aurrez
dana orlegiz jantzirik,
ain zan kutuna, ain zan maitia
ezeren pare bagarik;
nora nai adi ona erion
biotzaren barrenetik
zure begien bizi artean
ez egon ama oberik.

Gauz eder asko daukaz Euzkadik
bat beren izkuntza gurena
jakituriaz bete beterik
burutik eta oiñera;
zuk begi onez jakin zenduan
euskeratzen here ederra
esker aundiaz liraindurikan
erti gorengo erara.

Euskalerria jorratu zendun
elertiz eta itzagaz
jaki onenak anai artean
gozaro zabalduagaz;
erririk erri ibili ziñan
Jaungoikoaren graziaz
Euskaldunari, beti, on eiten
asmo ta gogo onenaz.

PAULIN

≡ ≡ ≡

TXOMIN

ZUBIRI'tar IÑAKI'ren ELEBARRIA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK
ARGITARATUA

**BILBAO'KO UDALAREN
BABESPEAN**